

Gutunak

Besarkada handi bat segurar guztiei

Lastimagarria da irailaren 21ean, igandea, Rafael Berasategik egunkari honetan idatziko gutuna, segurar minduen izenean (*Legazpi, 400 urtez aske. Nondik aske?*). Lastimagarria da ez duelako pisuzko arrazoirik ematen eta lastimagarria, kontuak nahasten dituelako.

Ikusten dudanagatik legazpiarrok ez dugu ondo egin gure askatasuna ospatzen, segurar «batzuk» mintzen ditugulako. Zer egin behar dugu, bada, 400 urte eta gero, festarik ez antolatu? Beste zenbat urtetan? Legazpi 224 urtez egon zen Segurako jauntxoan gehiegikeriak nozitzen eta, azkenean, borroka latz eginda askatasuna lortu genuen. Garaipen hori sekulakoa izan zen legazpiarrentzat, eta aurtan hori gogoratzen ari gara, besterik ez.

Ados nago esaten duenean beskeen kontura (barre eginez, ulertu dut nik) ezin dela festarik egin. Horrekin ados, ez baita gizalegezkoa. Baina hemen ez diogu inori barre egin, ezta egingo ere. Aldiz, gure diskurtsoa errespetuzkoa izan da din saiatzen gara.

Ni Batzorde antolatzaileko kidea naiz eta ez dit inork golik sartu. Era-

bakiak aho batez hartu ditugu orain arte eta erabat konpartitzen dut egindakoa. Oso gustura nago, gainera.

Leloa dela eta (*400 urtez aske*), ondo dakigu legazpiarrok gure herriaren zapalkuntza eta askatasuna noraino iristen diren eta ez diogu esaldiari bestelako esanahirik ematen. Hemen denok bere zentzuan ulertu dugu, gauzak nahastu gabe. Benetazko Askatasuna Gaztelako erresuman sartu ginenean hasi ginen galtzen, eta ez dugu geroztik berreskuratu. Hori badakigu. Horren harira, gogoratu nahi dut 2006. urtean Segurak herriaren sorrera ospatu zuela, ponpa handiz eta zilegitasun osoz. Baina ez da ahaztu behar Segura herria sortu zela Nafarroako Erresumari eusteko eta Gaztelaren alde egiteko. Eta ez al zuen gutunaren egileak ospakizun hori bultzatu?

Azkenik, ez nuke erantzun labur hau bukatu nahi segurar guztiei besarkada handi bat eman gabe. Izan ere, gauza bat da gure iragana ezagutzea eta gogoratzea, eta hortik irakaspenak ateratzea. Beste gauza bat da, etorkizuna eraikitzea, elkartasuna landuz. Eta biak uztartu daitkeela uste dut.

Sotero Plazaola. Legazpiko alkatea.

Legazpi, 400 urtez aske



Itzain

Nekane Gonzalez

Laurehun urte dira Legazpi Seguratik bereizi zela, eta horren harira, hainbat ospakizun eta ekitaldi egin dira gurean, urte osoan barrena. Izan ere, askatzea, askatasuna lortzea, aske sentitzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, eta are gehiago, askatasunaren bila joatera egoera latzek eraman badute bat. Baina...

Antza, segurar batzuk minduta sentitu dira Batzordeak urteurrena ospatzeko erabakitako leloagatik. Zingizango euskara elkartearen atarian, esaterako, eztabaida piztu da leloa dela eta ez dela. Zergatik lelo hori? Segurako gaur egungo herritarrok ez dugu, ba, horren errurik. Espainiako Estatuaren mende bizi gara gu... eta beste hainbat galde-

ra eta iritzi bota dituzte segurarrek. Legazpiarren artean ere bada leloa ezbaian jartzen duenik: Egia da Segurako jauntxoek ez zirela legazpiarrei oso tratua eman, errentak kentzen zizkietela eta una aprobetxatu zutela, baina legazpiarrek euren borondatez anexionatu ziren Segurara [...] beraz, aske hitza ez al dago sobera? Baina legazpiar gehienek eurenari eutsi diote: Ez zait iruditzen gaur egungo segurarrik mintzeko ezer dagoenik, ez egin diren ekitaldietan, ez goiburuan.

Ez gara arazo soziopolitikoak aztertzen hasiko, baina argi dago aske hitzak ez duela pertsona ez hotz ez bero uzten. Askatasun egarri garen gizarte honetan, norberari asko axola dio albokoak askatasuna lortzea; zer esanik ez, ordura arte norberaren mendeko izan bada! Baina segurarrek arrazoi dute benetan aske sekula izan ez eta orain ere ez gara diotenean. Dena den, ez dugu utziko, edo ez genuke utzi beharko behintzat, lelo edo goiburua huts batek urteetako izaezko eta jardunezko barne lotura hori hauts dezan. Ingurura begiratuta ere badugu nahikoa

nahasteri eta arazo; ez dezagun kontua gehiago korapilatu.

Baina askatasuna hartu dugunez hizpide, gogora dezagun hitzaren hainbat definizio eman izan direla. Definizioak errealtatetik zenbat duen dago ikusteko, ordea. Hona hemen bat: Besteren mendeko ez denaren egoera. Edo: Legeak alor jakin batean gizabanakoei aitortzen dien eskubidea. Eskubidea omen. Amen.

Eta, zuek ere, aurrerantzean, gugandik aske biziko zarete. Izan ere, urtebetean zuen begibelarriak aztoratzen aritu garen boskotearen agur Itzaina da gaurkoa. Inork ez ditu gustuko agurrak, edo halaxe aitortu ohi dugu beti. Nolanahi ere, irrikaz ala beldurrez, gogoz ala gogoz kontra, beti iristen da agur esateko unea.

Kopla herrikoari ukitu txiki batzuk eginda agurtzea besterik ez zaigu geratzen, ba!

Hauxe da despedidea / hauxe da despedidea / despedida honen tristea / agur aita eta ama / agur zu irakurlea / agur zu irakurlea / hauxe da despedidea.

Eskerrik asko! Zuek ere aske sentitu, eta bizi ondo!

Irudia



Lasterketaz lasterketa Goierri Garaian

URRETXU-ZUMARRAGA Udzakenero eguraldi honekin kirola egitea izaten da hotzari aurre egiteko irtenbiderik onena. Gauza bera pentsatuko zuten atzo Zumarragako udaletxe parean bildutako korrikalariek. Goierri Garaiko XII. Herri Lasterketa egin zuten Urretxuko udaletxeraino. Guztira hamar bat kilometroko ibilbidea burutu behar izan zuten parte-hartzaileek. Lehendabizi gurpildun aulkikoak atera ziren eta ondoren gai-

nontzeko lasterkariak. Jende asko bildu zen, bai bertakoak eta baita kanpokoak ere. Lasterketa hau Urretxu-Zumarragako I. Challenge-aren barruan bildu dute aurtan. Hala, hurrengo astean bigarren lasterketa bat egingo dute. Bi gurutzetako mendi lasterketa izango da Irimo eta Belokiraino. Bi lasterketa hauek kontuan hartuz, denbora gutxien behar duten lehen hiru saikatuek izango dute saria. ALEXAREZAGA

Emakumeentzat autodefentsa ikastaroa antolatu dute Legorretan

Legorreta Norbere buruarekiko konfiantza eta erasoan aurrean erabiltzeko teknikak landuko dituzte.

A. APALATEGI

Emakumeek euren burua defendatzen jakin dezaten, ikastaro trinkoa antolatu du Legorretako Udalak, Kutxaren Gizarte-Ekintzarekin elkarlanean. Autodefentsa ikastaro honetan, norbere buruarekiko konfiantza landuko dute; baita erasoan aurrean erabiltzeko oinarriko teknikak ere.

Legorretako emakumeei zuzenduta dago autodefentsarako ikastaro hau. Izena emateko epea urriaren 15ean bukatuko bada ere, udaletik ahalik eta azkarren izena emateko deia egin dute, plaza kopurua mugatua izango baita: Herriretarako, Legorretako udaletxerajoko behar da.

Ikastaroak hiru eguneko iraupena izango du. Urriaren 23an eta 24an, 18:00etatik 20:00etara bilduko dira. Hilaren 25ean berriz goizez, 9:00etatik 13:00etara. Matrikularen prezioa 30 eurokoa izango da.